

Auzoz Auzo

Altza

Koadrila arteko 3. olinpiada

Larraitz Garmendia (fnoa.: 391267)

Kirola taldean egiteko eta ondo pasatzeko ekintza

Altza eta inguruko auzo zein herrietako gazteek Altzako gaztelekuak antolatutako olinpiadan parte hartzeko aukera izango dute datorren hiletik aurrera. Izena emateko epea zabaldu da dagoneko eta antolatzaileran lanetan diharduten Lorena eta Soniarekin aritu gara hizketan.

Nola definituko zenukete olinpiada hau?

Kirola taldean egiteko eta ondo pasatzeko ekintza dela esango genuke. Larunbata goizean ohean egon beharrean kirola egiten dugu, martxoaren hasieratik olinpiada amaitu arte.

Zein ezaugarri ditu olinpiada honek?

Talde jokoa dela azpimarra daiteke, hau da, parte hartu ahal izateko 5-8 laguneko taldea sortu behar da. Horrezaz gain, bi maile-



Sonia eta Lorena buru belarri ari dira olinpiadak prestatzen.

tan banatu da lehiaketa; 14-18 urte bitartekoa eta 19 urtetik 24 artekoa. Maila bakoitzak bere sailkapena izango du.

Bestalde, neska-mutilek osatutako taldeak egon daitezke. Pasa den urtean bigarren postua eskuratu zuen taldea neska-mutilek osatzen zuten.

Zein kiroletan aritu beharra dago?

Areto futbola, boleibola, denborapasak, saskibaloia, futbolina, maratoi txikia, pala eta jokoak. Hiru urte hauetan kirolak aldatzen joan dira. Aurten, esaterako, denborapasak, mahai tenisa, futbolina eta pala izango ditugu lehen aldiz.

Nola antolatu duzue taldeen puntuatze sistema?

Jokatutako kiroletan lor-

tutako sailkapenaren arabera eskuratzen dira puntuak: lehen postuak hiru puntu, bigarrenak bi. Gainerakoei puntu bana ematen zaie.

Gainera taldeei betebeharrak edo gutxieneko arauak finkatu zaizkie. Arau horiek ez badira betetzen puntuak galtzen dira, adibidez parte hartzeko beharrezko elastikoa sei aldiz ez eramateagatik puntuak galtzen dira.

Ez al da kontraesana sariak banatzea olinpiada honetan?

Banatu diren sariak ikusita ez da kontraesanik ikusten, kirol txartelak dira eta. Dena den nahiz eta antolatzailerak helburu zehatzak ipini, lagunartekoa izatea, denborapasa eta abar, talde eta partehartzaile bakoitzak bere helburua finkatzen du eta kasu guztietan ez dator bat gurearekin.

Noiz hasiko da?

Martxoaren 6an izango da aurkezpena eta lehen aldiz jai berezia antolatuko da Gaztelekuan. Hurrengo egunetik aurrera eta larunbata arte, iraungo du ekitaldi honek kiroldegian.

IGNACIO
elcharri, s.l.

service
point

Kemen

- Bulegoko altzariak
- Egurrezko bulegoak
- Erakusmahaiak
- Artxibo sistemak
- Altzairuzko arropategiak
- Papertegi teknikoak

Isabel II, 14 behea • 20011 DONOSTIA
Tfnoa.: 45.30.70 • Faxa: 45.35.79

KUPEL

GIRO BERO ETA ALAIA
AURKITUKO DUZUN TXOKOA

Plaza Berrian - Tfnoa.: 67 20 70 - TOLOSA